


Oiartzun

OIARTZUNGO ALTXORRAK



Egileak:

TALDE HOBERENA

LH5



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

AIA



Aurkezpena

Kaixo, lagunak! Nire izena Aia da eta oso indartsua naiz egunero zuhaitzetatik igo eta jaitsi egiten bainaiz. Ausarta ere banaiz, nire lagunak ez dute lortzen nik egunero egiten dudana egitea.

Welcome!

Egun zoragarria pasa nahi duzu?

Ven y disfruta de una experiencia inolvidable.

Presentación

Oiartzun begirada batean

Kokapena

Oiartzun Kantauri isurialdean kokatuta dago, Euskal Herriko iparraldean. Errenteria, Lezo, Irun, Goizueta eta Lesaka ditu mugakide.


Erliebe-elementuak

Mendiak: Aiako Harria, Bianditz, Urkabe, ...

Oiartzun ibaia Oiartzunen jaiotzen da eta, Errenteria eta Lezotik pasa ondoren, Pasaian itsasoratzen da.

Bestelako informazioa

Oiartzunen pertsona ospetsu asko daude, adibidez: Xabier Lete, Sebastian Mendiburu, Manuel Lekuona, Juan Mari Lekuona, Alaitz Telletxea, Maider Zabalegi, Ander Imaz, Antton Kazabon, ...



ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

LUR GARDEN



Lur Garden Oiartzunen dago Iturriotz auzoan. Beste lorategi batzuk ere baditu inguruan, adibidez Hipatia eta Txara.

2017an hasi ziren sortzen Lur Garden. 20.000 m²ko lorategi zoragarria da. Bertan, besteak beste, 1.800 bat landare daude lorontzitan. Milaka landare arteko paseo atsegina eskaintzen du.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

AIAKO HARRIKO PARKE NATURALA



Aiako Harriko parke naturalak 6.913 hektareako zabalera du. Gipuzkoako Bidasoaldea, Oarsoaldea eta Donostialdea eskualdeak hartzen ditu barne, Irun, Errenteria, Oiartzun, Donostia eta Hernani udalerriek osatzen dutelarik. Goialdetik hasita, haritz arrunta eta haritz amerikarra agertzen dira gehien bat. Parkearen mendebaldean, intsignis pinuak, gorostiak, elorri zuriak eta pagoak daude.

Aiako Harriak hiru tontor ditu: Hirimugarrieta (806 m), Txurrumurru (821 m) eta Erroilbide (837 m) dira.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

MAKUTSO BASERRIA



Iturriotzen dago Makutso baserria. Aro Modernoan eraikia, berpizkunde garaiko harrizko baserria da. Nabarmentzekoak dira aingura eta dekorazioa, bertako biztanleek itsasoarekin izandako lotura adierazten dute.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


MANUEL LEKUONA LIBURUTEGIA



"Manuel Lekuona" udal liburutegia Oiartzungo erdigunean kokatuta dago (Elizalde auzoan).

Oiartzungo liburutegia 1992ko irailean inauguratu zen. Aipatutako eraikina, Done Eztebe elizaren ondoan dago eta helburu bikoitzaz eraikia izan zen, bi zatitan banatuta: alde batetik Kapera izateko eta, bestetik, erromesen ospitalea izateko.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



○ Abiapuntutik lehen interesgunera joateko,

Deskribapena

Xanisteban Plazatik Manuel Lekuona Udal Liburutegira joateko San Juan kaletik gora joan behar duzu Liburutegira iritxi arte.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Liburutegitik Makutso baserrira joateko, berriro joan plazara.

Deskribapena

Plazatik Manuel Lekuona hiribidea jaisten duzunean, Haurtzaro ikastola topatuko duzu. Behin hor zaudela, jaitsi Makutso bidea eta Makutso izeneko baserri eder bat topatuko duzu eskubian.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Makutsoetik Lur Gardenera joateko, Makutso bidea jarraituko duzu maldan gora. Biribilgunean bigarren irteera hartu.

Deskribapena

Iturriotz auzogunea zeharkatuz, aurrera jarraituta bidegurutzean hartu eskubiko bidea eta jarraitu aurrera. Geroago, beste bidegurutze bat aurkituko duzu eta hartu ezkerrekoa. Segi aurrera hiru bide aurkitu arte, han aurrera jarraitu. Beste bidegurutze bat topatuko duzu, zuk hartu behekoa. Segi erreka baten parean dagoen aparkaleku bat aurkitu arte.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Lur Gardenetik Aiako Harrira joateko, igo ezazu lehen jaitsi duzun malda, eta joan eskubiraldera eta aurrera.

Deskribapena

Sarobe Bide Errekan aurrera joan Ozentzioko ermita topatu arte eta, han, Sorondoko bidea hartuko duzu. Jarraian, Oianleku bidea hartuko duzu eta, handik jarraitzen baduzu, Aiako Harrian agertuko zara.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Aiako Harritatik herriko plazara bueltatzeko, hartu Oianleku bidetik behera Artikutzako bidea topatu arte.

Deskribapena

Artikutzako bidean segi behera Albistur jatetxera iritsi arte. Jarraian, hartu Martintxo kalea eta joan aurrera Santusene kaletik gora biribilgunera iritsi arte. Han, segi aurrera eta hartu Bidegaina kalea. Aurrera jarraituz, Aialde kalea igo behar duzu plazara iritsi arte. Hemen bukatuko duzu zure zirkuitua.

Bisitarientzako gomendioak

Lorerik ez hartu ezta apurtu ere.

Taldean joaten bazarete, joan espaloitik.

No os sentéis en los monumentos. Sentaos en los bancos o en el suelo.

Trae la cámara para hacer fotos.

Never walk on the road, only on the pavement.

Bring an umbrella.